

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure enpresaren bezero nagusiak enpresa elektriko handiak eta gobernuak izango dira. Hortik abiatuz, enpresa horiek, edo gobernuak, azken kontsumitzaileen artean banatu egingo dute energia gure enpresan egindako inbertsioak errentagarriak izateko eta etekinak lortzeko. Sare bat sortuko dugu, eta gu sare horren erdigunean egongo gara.

Hasteko, gure inbertitzaileak enpresa handiak izango direnez, haien ezaugarriak aztertu behar ditugu:

- Edukiko ditugun bezero nagusiak enpresa elektriko handiak izango dira, gure energia erabiliko dutenak, beraz energia etengabe eskaini beharko dugu, eta kantitate handietan. Energia saltzen duten enpresak dira hauek, Iberdrola esate baterako.

- Enpresa handi bat izango garenez, ez gara Euskal Herrira mugatuko, ezta Espainiara ere ez. Enpresa internazionala izateagatik beste herrialdeetako gobernuekin akordioak izango ditugu behin gure enpresa finkatuta egonda. Gure helburua hiri oso handiak energiaz hornitzeko, hiri horietako gobernuekin akordio batera heltzea da. Adibidez Estatu Batuetako New York edo Japoniako Tokio hiriburua.

Etorkizunari begira, ez dugu baztertzeko energiaren beste sektoreetara hedatzea. Nahiz eta orain bakarrik enpresa handientzat energia ekoiztu, behin enpresa sendotuta dagoenean, azken kontsumitzaileengana zuzenean energia eramatea etorkizunerako jomuga oso inportantea da.